

DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 248. zkia. 2016ko iraila



**Greziako kanpamentuak
eta Nepal,
guztion ardura**



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Familiaren Osasuna

Zure familiaren ahoaren osasunaz arduratzen garelako
Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu

Facebooken: Clínica Dental Irazabal Eta twitteren: @Clinicalrazabal



FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario ezin hobekak. **GALDETU**



IRAZABAL
clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik 22:00etara
Zapatuetan:
10:00etatik 14:00etara

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,
Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutua. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

San Martin Kulturala 2016
Bertso jaialdia
Ermua Antzokian, azaroaren 4an, 22.15ean

Andoni Egaña



Alaia Martin



Nerea Ibarzabal



Ametz Arzallus



Uxue Alberdi



Unai Iturriaga



Gai-jartzailea
Josu Goikoetxea



Sarrera: 10€
Lobiano Kulturagunean,
Kutxabankeko kuttazain,
webgunean eta
944 310 310
telefonoan salgai.



Euskararen gaineko gogoetak
Sobre el conocimiento y uso del euskera

LUTXO EGIA
KARMELO AYESTA



“Euskaraz badakigu, euskaraz bizi nahi?, euskaraz bizi gaitzke?”

EGUNA: urriaren 18an, **ASTEARTEA**
ORDUA: 19:00etan
TOKIA: **LOBIANO KULTURGUNEAN**

Antolatzaileak



berboetan



ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Amaia Arginzoniz,
Paul Bustindui,
Estibalitz González
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Maitane Egido.

LAGUNTZAILEAK:

Amaia Arriaga,
Juanmi Bravo,
Antonio Hernández 'Cuco',
Patxi López,
Valentin Mugarza
eta Ainara Riveras.

ARGAZKIAK:

Amaia Arginzoniz,
Jose txu Astarloa,
Paul Bustindui,
Maitane Egido,
Anne Erauskin,
Nahiarra Gallastegi,
Estibalitz González,
Valentin Mugarza,
Ainara Riveras,
Julio Uzquiza,
Oihane Vega,
Leo Vegué
eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Ainitze Antxia, Nora Mateos
eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

Drogeteniturrrik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien erantzukizunik.

XXVII.

San Martin

Azoka



Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA4 Oihane Vega (Erresuma Batua)	BOTEPRONTOAN16 Txus Rioja
ELKARRIZKETA5-7 Nahiarra Gallastegi Nepalen	KIROLZALE17 Anne Erauskin eskubaloi jokalaria
MALLABIAN ZER?8-9 Jose txu Astarloa saskibaloi jokalaria ohia	IRITZIA18 Udazken koloretan
MOTZEAN10 Eskerrik asko Txikurizaleok!	SALEROSKETAK19 Saldu, erosi edo agurtu
ERREPORTAJEA12-13 Ermuarrak Greziako kanpamentuetan	ANTZINAKOAK.....20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
ERMUAN ZER14-15 Jessica Oleaga dinamizatzailea	KALEKO INKESTA21 Erabili dituzu kaleko igogailuak?
	AGENDA22 Urriko agenda

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Oihane Vega

Urrian bi urte beteko dira Oihane Vegak Ermua utzi zuenetik. Irakasle ikasketak bukatutakoan, bere burua galduta ikusi zuen, aukera barik: zerrendak itxita, oposaketen datak airean, ingelesa ezinbestekoa... Maleta egin eta Londreserako bidea hartu zuen.

- Erabaki erraza izan zen?

Bai, oso erraza, Unibertsitatean nengoan erabaki nuen. Gelakide batekin etortzeko asmoa nuen, baina gora behera batzuegatik, bera ezin izan zen etorri. Azkenean, betidaniko lagun batekin etorri nintzen, lñigorekin.

- Nola imajinatzen zenuen Londres?

Etorri baino bi urte lehenago Londres ezagutzeko aukera izan nuen eta oso polita iruditu zitzaidan. Kaleak jendez gainezka daude beti, ez du inporta zer ordu den, beti dabil norbait kalean. Oso hiri handia da eta ez naiz konturatu bizitzera etorri naizenera arte.

- Zerk harritu zaitu gehien?

Hemen ez zarela inor, ez zaitu inork ezagutzen, ezezagun bat zara. Nahi duzun arropa jantzi dezakezu, edozein look eraman, ez zaitu inork epaitzen. Gainera, kulturantzun handia dago eta horrek asko harritu eta poztu ninduen. Eguraldia nahiko kaxkara da, baina Ermuan ere horrelakoa da. Egia esan Ermuan egun euritsu gehiago daude hemen baino.

- Ondo moldatzen zara ingelesez?



Oihane Vega Londresko Kensington Gardens parkean.



Hasiera batean guztiz beldurtuta nengoan, eta asko lotsatzen nintzen hitz egin behar nuen bakoitzean. Baina pixkanaka-pixkanaka eroso sentitzen hasi nintzen eta konturatu nintzen ez zela hainbesterako.

- Nolako da zure egun arrunt bat?

Pub batean egiten dut lan eta oso lankide dibertigarriak ditut. Lan egiteaz gain, barre asko egiten dugu elkarrekin, eta esan dezaket nire familia bilakatu direla, pubean egun osoa igarotzen baitut. Oso gustura nago bertan, baina badakit ez dela betirako izango. Bestalde, aisialdian asko gustatzen zait parkeetara joatea irakurtzera, edo paseoak ematea. Batzuetan etxe ondoko kafetegietara joaten naiz, edo erosketak egitera; beste batzuetan, berriz, etxean geratzen naiz deskantsatzen.

- Zerbait botatzen duzu faltan?

Egia esan bai. Askok gustatzen zait hitz egitea eta faltan botatzen dut kaltetik noanean jendea agurtzea edo berriekin hitz egitea. Esan bezala, hemen ez zaitu inork ezagutzen. Bestalde, janariaren kalitatea ez da batere ona, eta oso garestia da dena.

- Noiz egon zara Ermuan azken aldiz?

Nire amaren urtebetetzean egon nintzen, maiatzean. Urrian ere bueltatuko naiz eta hiru hilabete igaroko ditut han.

- Uste duzu gurera bizitzera bueltatuko zarela?

Ez dut uste Ermura bueltatuko naizela, baina ez dut baztertzeko Euskal Herrira bueltatzea. Momentuz gustura nago Londresen, baina ez dut uste nire lekua denik.

Dorleta Vidal

SAN ANTONIO

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

IKASTOLA
1968tik Ermua euskalduntzen



Nahiara Gallastegi, boluntarioa Nepalen:

**“Laguntzeko ez da munduko
beste puntara joan behar”**

Ekvador, Thailandia, Maroko, Tunes eta Europa erdia zeharkatu eta gero, bere bizitzako ametsa betetzeko aukera izan du Nahiara Gallastegik aurtengo udan: Nepal ezagutu. Gorsyang herrixkan eta Katmandun aritu da ermuar gazte hau, hainbat proiektu gauzatzen eta bere kabuz antzemandako beharrianetan laguntzen. Gurean bildutako materiala, sendagaiak eta jostailuak ere bertan banatu ditu. Une ahaztezinez jositako bidaia eta munduko ustelkeriaz jabetzeko aukera paregabea. Alegia, nepaldarren bizipoza txanponaren alde batean eta euren egoera latzaz etekina ateratzen duten nazioarteko agentziak bestean.

- *Uztailaren 23tik abuztuaren 14ra arte egon zara Nepalen. Zein herritan zehazki?*

Katmandun egotekoa nintzen, bertako proiektu batean, eta han egun pare bat igaro nituen. Gero, 2015eko lurrikarako epizentrora joatea eskaini zidaten, mendira, behar handia zegoelako, eta bertara joan nintzen, Gorsyang herrixkara. Sarbideak oso txarrak dira, jeepa hondatu zitzaigun eta 18 kilometro egin behar izan genituen oinez, motxilarekin maldan gora.

- *Zein izan zen zure zereginna bertan?*

Eskola bat eraiki behar genuen, eta lan gogorra egin genuen, baina esperientzia polita izan zen. Bertako familia batekin bizi nintzen, bizilagunak oso jatorrak ziren eta inguruko mendiak ezagutzeko aukera izan nuen.

- *Laguntzeaz gain, herrialdeaz gozatzea izan da zure helburuetako bat, ezta?*

Bai, txikitatik nahi nuen Nepalera joan, eta nire helburua sentsibilizazioa zen, herria eta bertako biztanleak ezagutu, kulturaren murgildu, umeekin ondo pasatu, helduekin mintzatu, eta ahal nuen gauza txikietan lagundu. Hilabete batean ez dago denborarik gauza handirik egiteko.

- *Eta zure nahiak bete dituzu?*

Bai, sekulako esperientzia polita izan da eta badakit nik irabazi dudala bertakoekin baino gehiago. Oso baliagarria izan da niretzat hango bizimodua ikustea, konturatu naizelako gauza gutxirekin oso zorionsu izan daitekeela. Eta batzuetan, gauzak diren modukoak direla eta onartzea besterik ez dagoela. Hemen ez daukaguna desiratzen dugu beti, eta kontsumismoak tristura sortzen du.

- *Zertan nabaritzen zitzaizen zoriontasun hori?*

Euren aurpegieta eta espresioetan. Txalogarria da lurrikara bortitza jasan eta gero berriro altxatzeko duten indarra. Aipatzekoa da gainera, lurrikara eta gero laguntza asko jaso zutela hamaika herrialdeetatik, baina jada ahaztuta daude. Nepal ahaztu da. Bertako gobernuak ere ez du laguntzen eta Katmandun, lurrikararen ondorioz, errefuxiatu-esparru pilo sortu da, eta txirotasun handia dago. Egun pare bat igaro nituen bertako familia batekin eta horretaz kexatzen dira. Jada ez da joaten ez Gurutze Gorria, ez ACNUR, inor.

- *Nazioarteko abandonatu dituzu...*

Bai, ondorioz elkarte mordo bat sortu da egora horretatik etekina ateratzeko *boluntu-*



rismo deritzonaren bitartez. Zuk agentzia bati diru kopuru bat ordaintzen diozu eta hark agintzen dizu zuk aukeratutako proiektura bideratuko dela dirua, eta zuk ere parte hartuko duzula proiektu horretan. Errealitatea da agentzia hori diru guztiarekin geratzen dela, aukeratutako herrialdera ez dela ia ezer heltzen. Hori da niri gertatu zitzaidana. Lehen egunetan ohartu nintzen horretaz, eskola eraikitzen nengoen bitartean. Ez zegoen ia materialik, ez zegoen inor gu laguntzeko, eta zailtzan jartzen dut eskola bera beharrezkoa zen edo ez, aldameneko herrian beste eskola bat zegoelako. Hori ikusita, nire kabuz ibiltzea erabaki nuen.

- *Jendearen asmo onez aprobetxatu egiten dira, beraz.*

Bai, Nepaleko umezurtzetxeen iruzurra ere askotan salatu da. Nepaleko umeen

%90ek aita edo ama bizirik du, hau da, umezurtz-etxeetan dauden ume ia guztiak gurasoak dituzte. Badaude mafiak familiei dirua eskaintzen dietenak umeak umezurtz-etxeetan izateagatik, eta ume horiek zaintzera doazen turistez aprobetxatu egiten dira mafiak. Negozio hutsa da.

- *Errealitateaz ohartzean, zer egin zenuen?*

Katmandura bueltatu eta monastegi budista batekin eta eskola batekin harremanetan jarri nintzen. Monje budistek ingeleseko klaseak ematen hasi nintzen, 3 orduz egunean; arratsaldetan, ECDC Child Development Centerren bitartez, 3 urteko umei klaseak ematen hasi nintzen eta irakasle formakuntza egiten nuen. Bi eta hiru urteko umeak aulki txiki batean jartzen ziren, letrak banan-banan ikasten, egunean le-

“Euren hezkuntza sistemak agintzen du bi urteko umeek irakurtzen ikasi behar dutela”



Drogetenituri, 248 zkia.




ZERMIK
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com

Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

tra bat koadernotxo batean behin eta berriro idazten, ze gogorra! Gero atsedendaldia eta astean ordubete, dantza. Niri burura etorri zitzaidan gela apaintzea, irakasleei dantzak erakustea eta azaldu nien zein lan egin zezaketen adin horretako umeeekin. Hala ere, ezin diezu esan bi urteko ume batek ez duela irakurtzen ikasi behar, euren hezikuntza sistemak hori agintzen duelako.

- Nolakoa da Nepaleko egunerokotasuna?

Oso herri erlijiosua da, oso mistikoa, eta beraien sinesmenek ez dute gureekin zerikusirik. Ez dakit berrargizatzeagatik den, baina jendea orokorrean oso ona da, eta lasaitasun osoz bizi dira, ez diote beldurrik heriotzari. Errausketak ikusteko aukera ere izan nuen eta oso gogorra egin zitzaidan, baina eurek oso barneratuta dute heriotza, eta ohore bat da jendaurrean senideak erretzea.

- Badute jateko beste?

Bai, lurra emankorra da. Nutrizio gabeziak badituzte, baina ez daukate gosarik. Arazorik handiena uraren potabilizazioa da, ume askok sabela puztuta dute amebengatik, eta arazo asko daude higiegi faltagatik eta osasun-sistema eskasagatik. Heriotza-tasa altua da.

- Zein da emakumearen egoera?

Oso gizarte matxista da erlijioaren ondorioz, hinduismoa oso matxista baita. Haren arabera emakumea

“Bakarrik bidaiatzen duzunean, zure burua hobeto ezagutzeko aukera duzu”

markatuta doa beti: ezkontuta badago, pultsera gorria eta *bindia*; ezkongabeek, berdea. Budismoa, aldiz, asko gustatzen zait. Ez da erlijio bat, bizitza-filosofia da.

- Joan baino lehen, bazenekizkien gauza horiek guztiak?

Bai, liburu mordoia irakurritan nituen herrialdeaz, budismoaz, hinduismoaz... Gainera, Nepal da munduko herrialde bakarrenetarikoa non erlijio ezberdinak bakean elkarbizi diren: hinduismoa, budismoa, islam apur bat... Tenplu hindu batean budistak topatu ditzakezu otoi egiten eta elkarbizitza hori oso polita da.

- Argi dago urteetan presatatu duzun bidaiari izan dela...

Bai, eta bakarrik joan nahi nuen. Gure buruari mugak jartzten dizkiogu beti eta bakarrik joaten zarenean zure burua hobeto ezagutzeko aukera duzu. Konturatzen zara pentsatzen duzuna baino askoz ere gehiago egiteko

gai zarela. Berriro bueltatuko banintz, bakarrik joango nintzateke.

- Eta bueltatuko zara?

Bai, zalantza barik. Uztaila eta abuztua montzoi garaia da eta sasoi lehorrango batean joatea nahiago nuke, Himalaya hobeto ikusteko. Paisajeak ikaragarriak dira. Lagunak ere egin ditut, eta laguntza ematen jarraitu nahiko nuke.

- Hemen egonda ere, Nepaleko bizilagunen egoera hobetu daiteke?

Laguntzeko modurik onena bertara joatea da, turismoa egin eta bertako ekonomian dirua utzi: denda txikietan erosi, euren etxeetan edo ostatu txikietan lo egin... Gaur egun oso turista gutxi dago, momentu askotan bakarrik sentitu naiz. Hemendik lagundu nahi dutenek, hobe hemengoei laguntzea, hemen ere badago zer hobetu. Horretarako ez da munduko beste puntura joan behar.

Dorleta Vidal



AMAIA HARATEGIA



Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

Hamburguesería TITANIC



Pintxo dastaketa poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83



KARABIXA KAFETEGIA
Egunero 8:30etik aurrera zabalik



San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com



943 03 33 15

Jose txu Astarloa, saskibaloia jokalaria ohia:

“Nire garaian saskibaloiaz bizitzerik bazegoen”

Bere lehen abizena Posada den arren, Astarloa moduan zen ezaguna bere familia Ermuan. Aita eta anaia pilotariek egin zuten bezala, Jose txu ere Astarloa abizenaz egin zen ezaguna saskibaloian. Bere 205 zentimetroekin maleta egin eta saskibaloia abentura bizitzera irten zen Jose txu 15 urterekin, Espainiako ACB liga jokatzera. Duela 20 urte saskibaloia utzi zuen, eta Mallabian urte batzuk igaro ondoren, gaur egun Berrizen bizi da.

- 15 urterekin hasi zinen saskibaloian Donostian, zure lehen esperientzia etxetik kanpo.

Bi urte eman nituen Donostian, hori izan zen nire aurreneko hartu-eman saskibaloiarekin. Ondoren Tabirakorra iritsi nintzen, baina urte bakar bat baino ez nuen jokatu bertan, hurrengo urtean Bilboko talderako bidea hartu bainuen.

- Hiru urtetan saskibaloian hastetik Bilboko Caja Bilbao talde seniorrean jokatzera iritsi zinen. Jauzi itzela urte haietarako.

18 urterekin talde nagusiarrekin jokatzeko nuen Bilbon. Junior mailan igaro nituen bi urte haietan Iturriaga, Davadillo, Bryant edo McDowell izan nituen taldekide.

- Bertatik, Xixoira urte bete.

CajaBilbaok ACBn jarraitzen zuen eta urte batez Xixoiko taldera eraman ninduen minutu gehiago hartzeko. Ondoren Bilbora itzuli nintzen.

- Zer oroitzen dituzu Bilbon igarotako urte haietaz?

Bilbon zazpi urte eman nituen, nire kirol ibilbide nagusia. Hasieran 2 urte junior taldean aritu nintzen. Beste bi urte egin nituen EBA mailan eta hiru LEB ligan (egungo bigarren maila). Oso oroitzen onak ditut, LEB ligan emandako hiru denboraldietan. Urte batean igoera lortu genuen arren, arrazoi ekonomikoengatik ezin izan genuen maila gorenean jokatu. Beste bi urteetan behin igotzeko zorian egon ginen. Bestea desastre hutsa izan zen Kopicki, Ortega eta Carbajo bezalako jokalariek taldean genituen arren!

- Alcoyn udako aurreneko denboraldi bat bete ostean, Espainiako saskibaloian gorena den ACB mailako Murtziaren eskaintza heldu zitzaizun.

Bilbao Patronatorekin denboraldia bukatu ostean, nire agente zen Gorka Arrindarekin



hitze egin nuen udako liga batean parte hartzeko. Alcoyn izan zen hartan hainbat taldek eskaini zidaten kontratu bat, baina Murtziako ACB eskaintza onartzea adostu nuen.

- Zelako esperientzia izan zen ACB mailan aritzea?

Kirol mailan ez zen urte oparoa izan, minutu gutxi batzuk izan nituelako. Arlo pertsonalean urte ona igaro nuen Murtzian, oroitzen politak bizi izan nituen bertan.

- Murtziako urtearen ondoren, Bilbora itzultzeko aukera izan bezain pronto itzuli zinen.

Bai, denboraldia bukatzean bigarren mailara itzuli nintzen Bilbora. Lesio asko izan nituen urte hartan eta denboraldi amaieran saskibaloia profesionala uztea adostu nuen.

- 28 urterekin saskibaloia utzi eta lantegira itzultzea ez zen erabaki erraza izango.

Denboraldi txar baten ondoren gauzak pentsatu nituen. 28 urte nituen, eta

ekonomikoki beherakada eman zuten saskibaloiak. Planteamendu aldaketa egin nuen.

- Uda hartan baina Sergio Scariolok zuzentzen zuen Gasteizko Tau Ceramica Basketarekin ibili zinen aurreneko denboraldian.

Jokalaria internazional askoren falta zeukaten aurreneko denboraldian eta horretarako erretiratzeko geunden jokalaria askori deitu ziguten. Ondo egiten bagenuen taldeko fitxa bat izateko aukera lor genezakeela saldu zigun Scariolok hasieran. Baina iruzur hutsa zen. Aurreneko denboraldia bukatu aurretik utzi nuen kontzentrazioa. Anekdotak bitxia izan zen, entrenatzaile ona izan arren italiarra.

- Mallabira itzuli zinen baina ez zenuen saskibaloia guztiz utzi ezta?

Ez, Durangoko lagunek Zaldiraren talde berri bat egin zuten, erregional mailan eta bertan aritu nintzen. Ez zen maila profesionala, baina

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA



Oh la lá!

EMAKUMEENTZAKO MODA


Goienkale behea, z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Telefona: 943 53 57 48
Mugikorra: 649 55 99 09
ohlalaermua@gmail.com

gustura eman nituen urte batzuk bertan kirol apur bat egin ez. Gerora ere denboraldi solteren bat jokatu izan dut Tabirakorekin, baina plazer hutsez.

- **Bilboko saskibaloian garrantzia handia izan duen Gorka Arrindarekin harreman estua izan zenuen, zu izan baitzinen berak agente bezala izan zuen aurreneko jokalaria.**

Errepresentante zela ezagutu nuen Arrinda. Nirekin aritu zen urteetan oso lan ona egin zuen. Hortik aurrera gertatutakoen inguruan ez dakit asko.

- **Bilboko saskibaloia taldearen desagerpena eta oraingo**



Bilbao Basketen agerpena ikusi ondoren, zer pasatzen zaizu burutik astero ia 9.000 pertsona ikusita Bilbao Arena leporaino betetzen?

Oso gauza polita da. Ni aritu nintzen urteetan La Casillako kantxan jokatzeko genuen eta bertan 4.000 pertsona inguruzako lekua dago. Saskibaloia itzelezko gorakada izan du Bilbon. Modan dago, eta jendeak taldea suspertzen du. Duela urte batzuk esan izango baligute hau gertatuko zela inork ez lukeen sinistuko!

- **Bestalde, Bilbao Basket taldeaz aparte, Bizkaiko beste talde guztiak kinka ekonomiko larrian dabilta.**

Bai, gaur egun ez dira errentagarriak LEB mailan lehengo urteetan gertatzen zen moduan, eta arazo bat da bai bertan aritzen diren profesionalentzat, bai formazio mailan dauden gazteentzat ere.

- **Arlo ekonomikoan ere aldaketa handia dago gaur egun.**

Noski, nire garaian saskibaloia jokalaria profesional batek bizitza aurrera ateratzeko nahikoa diru lor zezakeen. Gaur egun lehenengo mailaz gain beste guztiak ez dira errentagarriak, eta gero eta jokalaria nazional gutxiago ari dira agertzen. Honez gain, gero eta diru sarrera ekonomiko gutxiago dituzte taldeak eta

hori beste zailtasun bat da. Askok dira arriskuan dabilten taldeak, desagerpenaren muturrean.

- **Zer aldaketa sumatu duzu urte haietatik hona saskibaloian?**

Askok jaitzi da saskibaloia. Nire sasoiaren herri guztietan hainbat talde zeuden eta jendeak afizio handia zeukan. Gaur egun Durangoko Tabirako bezalako taldeek zailtasun ugari dituzte talde oso bat osatzeko. Beherakada nabaria da.

- **Jokatzeko eran ere aldaketa samurra jasan du saskibaloiak.**

Formazio gehiago dute entrenatzaileek. Askok tresneria gehiago erabil daiteke gaur egun, eta azkarragoa da jokoak.

- **Eta jokalarien arloan, nola ikusten duzu jokalaria gazteen etorkizuna?**

Jokalaria batek aurrera ateratzeko aukerak behar ditu. Nire garaian beti zeuden pare bat jokalaria amerikar kantxan, beste guztiak baina bertakoak ziren. Gaur egun Europako jokalaria asko daude, eta jokalaria nazionalak gutxi batzuk dira. Ez da errentagarria hemengo saskibaloia eta gero eta aukera urriagoak izango dituzte gazteek.

Paul Bustindui

ZUNTZ OPTIKOAREN OBRAK URRIAREN 10EAN HASIKO DIRA

Mallabiko Udalak urriaren 10ean ekingo dio herrigunean zuntz optikoa sartzeko obra zibilaria. Goitondon ekingo diete lanei, zanga bat zulatuz. Igor Agirre alkateak azaldu duenez, udalak bere gain hartuko duen zatia hilabeteko epean gertu izatea aurreikusuten dute. Zuntz optikoren instalazioa Ermuko Udalaren Promosa enpresa publikoak ekingo du. Mallabiko Udalak 85.000 euro bideratu ditu obra zibileria. Promosa enpresa publikoak, berriz, 65.000 euro inbertituko ditu.

Modas Candé
Candelaria Rueda

Diputación, 12 | 48260 ERMUA Bizkaia
T 665 703 904
modascande@gmail.com

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

Denda berria

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

ZK

ZUZENBIDE KONTUAK
Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

SEHIGA
PROTECCION LABORAL
PLAN BABESERAKO
ORNIDURA

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

MUGA

KIROLAK

San Pelaio 4A behea
Telefonoa: 17 64 77
ERMUA

**MANOLO MÉNDEZEK
AGUR ESAN DIGU**

Abuztuaren 14an Manolo Méndez ermuarra zendu zen. Drogeteniturrriko orriotan hainbatetan jaso ditugu bere kirol lorpenak eta orri hauetatik ere, atsekabez, agur esaten diogu.

**TXINDURRI TALDEAK
IZENA EMATEKO EPEA
ZABALDU DU**

2011n jaiotako umeek izena eman dezakete dagoeneko Txindurri Taldean. Gurasoek WhatsApp bidali beharko dute 658 74 14 98 telefonora urriaren 1a baino lehen, eta bertan umearen izen-abizenak, adina eta telefonoa zehaztu. Ume nagusiagoak ere apuntatu daitezke.

**BERBETAN
JARDUNALDIETAKO
AZKEN HITZALDIA
URRIAREN 18AN**

Lutxo Egiak eta Karmelo Ayestak hitzaldia eskainiko dute urriaren 18an, asteartea, 19:00etan, Lobianon. "Euskaraz badakigu, euskaraz bizi nahi? Euskaraz bizi gaitzake?" da saioaren izenburua, eta apirilean gauzatu ziren Berbalagun jardunaldien azken hitzaldia izango da. Doan.

**MARTXAN DA XXIII.
JUANITA IBAIBARRIAGA**

Aurtengo edizioa bi kategoriatan banatuko da: batetik, LHko 3., 4., 5. eta 6. mailako ikasleak; eta, bestetik, DBHko neska-mutilak. Aurkeztutako lanek ipuinak, narratioak edota erreportajeak behar dute izan, eta gaia librea da. Parte-hartzeko epea azaroaren 3an amaituko da, osteguna. Ermuko Udaleko Euskara Sailak 400 euro banatuko ditu irabazleentzatean.

Eskerrik asko Txikurizaleok!

Oier Araiztegi, Iñaki Bildosola, Txomin Espilla, Nagore Espilla, Olatz Gil, Iraide Uriarte, Eneritz Aranburu, Igone Amesti, Asier Azagirre, Igor Astarloa, Eli Areitioaurtena, Juanjo Gorritxategi, Idoia Zamakola, Txebis Gorritxategi, Estibalitz González, Eneritz Arriaga, Bea Narbaiza, Dorleta Vidal, Idoia Narbaiza, Nerea Berriozabal, Itziar Unanue, Carmen Solozabal, Aitzol Lejardi, Jon Areitioaurtena, Elias Uriarte, Begoña Infante, Olatz Arriaga, Lidia de Luis, Amaia Sangroniz, Irati Yarza, Ines Arano, Jokin Arano, Alex Alvarez, Jon Alvarez, Libe Masié, Alazne Aiestaran, Alicia Lorenzo, Juan Fernández, Jasone Izarra, Axier Mandiola, Félix Cuadrado, Ugutz Lasunción, Aitor Jauregi, Patrizia Mujika, Esther Larreategi, Nerea Izarra, Eneko Goikoetxea, Gaizka Goikoetxea, Asier Durán, Israel Ruiz, Antxon Ziarsolo, Alberto Belar, Manuel Moreno, Nerea Álvarez, Begoña Fernández, Iñaki Delgado, Jabi Vidal, Asier Malbadi, Malen Eizagirre, Olatz Santos, Lidia Jiménez, Natalia Arrizabalaga, Mikel Zarrara, Axier Alvarez, Lorea Arrizabalaga, Asier Madarieta, Mikel Madarieta, Naroa Beitia, Ainhoa Lista, Mirene Moreno, Beñat Redondo, Endika Goitandia, Nerea Redondo, Asier Cascán, Iratxe Arrizabalaga, Eider Gisasola, Luken Aranburu, Hiart Redondo, Maria Ormaetxea, Maitane Mugerza, Danel Gorritxategi, Alazne López, Paule Gorritxategi, Libe Solozabal, Jone Ojea, Laura Pascual, Alex Ugena, Oier Viteri, Eli Txurruka, Amaia Txurruka, Rodol Ugena, Tere Uriarte, Gaizka Areitioaurtena, Goxo-goxo, Izagirre sendia, Juan Antonio Izagirre, gure tortilagine estimatuak eta, zelan ez, gerturatu zineten guzti-guztioi.

Berbalaguneko 15. edizioa prest dago

Aurten, iaz ekindako bideari jarraituz, Berbalagunek hainbat ekintza eskainiko ditu urritik abendura. Horrela bada, urriaren 21ean Mendibilerako mendi buelta, urriaren 25ean koktel eta konbinatu tailerra, azaroaren 5ean Mendaroko txokolate fabrikari bisita eta, azaroaren 18 eta abenduaren 9an "Familia Dantzantitz" kirol eta dantza jarduerak izango dira. Bestetik, urtarrietik aurrerakoak, ermuarrok erabakiko dituzte, beti bezala, "Berbalagun Menu"an ekintzak proposatuz eta horiei bozka emanez. Berbataldeei dagokienez ere, berrikuntzak dakartza 16-17 edizioak, guztiak zehaztu gabe egon arren, arduradunaren esanetan, kirola eta mintzapraktika uztartuko dituen berbataldea eskainiko da, baita gazteez osatutako talde bat ere. Bestalde, iaz sortutako "Gurasolagun irekia"k, erakargarriagoa izan dadin, zenbait aldaketa izango ditu. Mintzodromo kopurua ere handituko da urtean zehar baina momentuz ez dago zehaztapen gehiagorik.

**Bruna Sonora taldeak irabazi du aurtengo
Folkez Blai leihaketa**

XI. Folkez Blai lehiaketak baditu irabazleak: Lehen saria, Madrilgo Bruna Sonora taldeak jaso du (3.000 euro); bigarrena, aldiz, Sevillako El Gueto con Botas taldearentzat izan da (1.500 euro). Irailaren bigarren asteburuan burutu ziren lehiaketako finalak eta bertan 6 musika talde aritu ziren. Horrez gain, beste 6 taldek giroa alaitu zuten asteburu osoan zehar lehiaketatik kanpo. Folkez Blaik 11 urte bete ditu, eta Ermuko Udala eta herriko folk musika taldeen arteko lankidetzari esker antolatzen da urtero.

 <p>T XALAPARTA ABERNA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Itsaskabra pudina. - Txipiroiak. - Piper beteak: okela edo onddoak. - Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak. - Redondo saltsan. - Sagar tarta. - Gazta tarta. - Tortila patata...
<p>Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!</p>	
<p>Erdikokale 13 (Ermua)</p>	<p>ENKARGYAK 943 030 299</p>

 <p><i>Heapaindegia</i></p> <p>MT</p>	
<p>MT Heapaindegia C/ Marqués de valdespina nº 8 bajo 48260 Ermua (Bizkaia) tlf. 943170474 Movil. 688819336</p>	<p>Silvia Gastón Izaquirre</p> <p>facebook: https://www.facebook.com/leapaindegiamttxehuera.mt</p>



16/17

IKASTURTEA

UDAL

EUSKALTEGIAK

euskara klaseak • clases de euskera

MATRIKULA ZABALIK

Eskaintza eta ordutegi zabalak / Txandakako taldeak /

Azterketa ofizialak maiatzean eta urrian /

16 urtetik gorakoentzat / Bekak /

Langabetuek eta lehen mailako ikasleek matrikularen prezio erdia

IKASTAROAK	KLASEAK
Perfilak (B1, B2, C1): Osakidetza, Hezkuntza, HAEE ... HABEren 1., 2., eta 3. Mailak/EGA	Astean 3 egunetan (2 ordu egunean)
Oinarrizko maila (A1/A2)	Astean 2 egunetan (2 ordu egunean)
Dendariak eta gurasoak	Astean 3 egunetan (2 ordu egunean 14:30ean)

*erabili
euskara*

BULEGO ORDUTEGIA

09:00 - 13:00 eta 16:30 - 20:00

ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA

Teresa Murga Eraikina. Goienkale, z/g 2. solairua

Tf.: 943 17 09 25

euskaltegia@udalermua.net

<http://www.ermua.es/pags/euskaltegia>

Julio Uzquiza eta Maitane Egido, bi ermuar Greziako kanpamentuetan

Ekainean egon ziren Julio Uzquiza eta Maitane Egido Siriako errefuxiatuen esparruetan, Grezian. Quiosen Uzquiza eta Tesalonikako Oroekastron Egido. Oso bestelako bideek eraman zituzten bertara eta ezberdinak izan ziren euren helburuak eta bizipenak. Baina errealitate garratz beraren aurrean egon dira: 2011tik Siriako 4.000.000 bizilagunek euren etxeetatik alde egin behar izan dute, eta horietako asko Grezian daude orain, giltzaperatuta.

Eibarko CARE elkartearekin kolaboratu zuen Juliok urte hasieran, arropa, mantak, lo-zakuak eta materiala jasotzen (gerora Siriara bidaliko zen materialarekin, alegia). Gaiarekin sentsibilizatuta zegoen, baina horrez gain, kanpamentuetan zegoen jendearen benetako egoera ezagutzeko jakinmina sortu zitzaion. “Eibarko emakume batekin elkartu nintzen eta elkarrekin joatea erabaki genuen, 12 egunez. Donostiako Zaporeak proiektuarekin bat egin genuen kasualitatez, jendea behar baitzuten momentu horretan”.

Duela bi urte abiatu zen Zaporeak proiektua, eta horri esker 1.700 errefuxiatuei ematen zaie bazkaria egunero. “Janari kopuru itzela koinatu, ontziratu, garraiatu eta kanpamentuetan banatzen genuen. Lan eskerga zen, baina asebetetzen duen horietakoa, egunean behin

behintzat ganorazko otordua bermatzen dielako iheslari”, dio Juliok.

Albistegietan, gatazkak bai, baina errefuxiatuen dramak ez daukala jada ia lekuri salatzen du, eta oso egoera gogorak bizitzen direla aitortzen du. “Lehen eguna kanpamentuan oso gogorra izan zen. Bazkarien bila datozenak ilaran ipini eta identifikatzeko txartel batzuk ekartzen dituzte. Batzuek 12 txartel ekartzen dizkizute, eta beste batzuk bakarrik datoz. Ez dakizu zergatik dauden bakarrik, nola heldu diren bertara, eta bidean zer gertatu zaien. Ilara horietan tentsioa nabaritzen da. Ukitu simple batek liskarra sor dezake. Iritsi orduko bidaia beldurgarria egin dute Turkian zehar eta trafikatzailen eskuetan egon dira hilabetetan. Pentsatze hutsak larritasuna sortzen du!”.

Gerrak ez du errespetatzen ez pertsonarik ez maila sozialik. Batzuek dirua dau-



Julio Uzquiza.



kate, ikasketak, kulturadunak dira; beste batzuek ez daukate ezer, eta euren artean lapurretak egoten dira. “Dirua duenak kanpamentutik irten eta nahi duena eros dezake. Guk bazkari xume bat ematen genien egunean, baina eguna luzea da eta gosse dira”.

Greziarrekin elkarbizitza

Azpiegitura falta sumatzen da kanpamentuetan, baina hainbat esparrutan laguntza eskaintzen dute nazioarteko hainbat elkarte eta erakunde, nolabaiteko duintasuna eta arretarik oinarrituko emateko. Esaterako, “ume batzuk bakarrik heltzen dira irlara, bidaia luze horietan familiak nahigabe apurtzen direlako, galdu egiten dira. Ez dago jakiterik gurasoak ito egin diren -esaten du Juliok-. Quiosen umezurtz-etxe bat dago. Gaur egun 25 edo 30 ume daude bertan, mundu honetan bakarrik daudenak”.

Hala ere, egoera gero eta txarragoa da, kanpamentu horiek hiri barruan baitaude, greziarren etxeetara pegatuta, eta elkarbizitza zaila da. Greziarrak izan ziren errefuxiatuei laguntza eskaini zieten lehenak, eta oraindik ere batzuek laguntza antolatzen jarraitzen dute. Baina beste batzuek ez dituzte kanpamentuak nahi, eta protesta egiten dute. “Turismoa zen diru-iturri garrantzitsua, baina %80 jaitsi da orain. Amanecer Dorado alderdi politikoa faxista gero eta indar handiagoa hartzen ari da eta azkenean kontua lehertuko da”, dio Uzquizak. Izan ere, Siriako errefuxiatuen arazok immigrazioari atea zabaldu dio Julioaren esanetan, eta Iraketik, Afganistanetik, Pakistanetik, Egiptotik, edota Etiopiatik ere heltzen da jendea Greziara egunero.

Hemendik laguntzea posible dela azpimarratzen du, arropa, dirua edo bestelako materiala emanez. Kexatzen



-%50!!

Atsedendiaz hitz egingo dugu?

Zubiaurre 32 (Ermua) 943 177 041

Drogeteniturrri, 248 zkia.



Denetik zure maskotarentzat!

- Maskotentzako janaria
- Katu eta txakurrentzako osagarriak
- Maskoten autogarriketa
- Ileapaindegia
- Hezitzailea

Tel.: 943 05 44 20
Bizkaia etorbidea, 11 - eskuma
48260 ERMUA (Bizkaia)
bobby.todoparatumascota@gmail.com

da, batzuek esaten dutelako dirua ez dela heltzen, baina argi dauka: “Ematen ez den dirua, ez da heltzen, hori segurua da. Nik uste dut askotan aitzakiak bilatzen ditugula ezer ez emateko. Lagundu nahi duenak, ikertu dezala, ez diezaiola edozeini eman. Orain internet bitartez erraza da jakitea nora bideratzen diren gure ekarpenak”.

Oroekastroko errealitatea

Beste alde batetik, Maitane Egido ekaineko lehen 3 asteetan egon zen Grezian. Migratzaileei eta errefuxiatuei laguntza emateko elkarrekin sortzen kolaboratu zuen Salamancan, eta Siriako gaztazka unerik gorenean zegoenean albistegietan, indar handia hartu zuen elkarrekin. Albistegien interes faltaren eraginez, elkarrekin ere behar egin zuen, eta sentsibilizazio eta kontzientzia ekintzak egiteari ekin zioten or-

duan. “Material asko eta kemen handia genuen eta teoriatik praktikara jauzia egitea erabaki genuen”, dio Maitanek.

Idomeni buruan, heldu baino hilabete lehenago hustu zuten kanpamentu hura eta Oroekastroa joan zen Maitane, bertara alde egin baitzuten Idomenin zeuden errefuxiatu ugari. “Esparru militarizatu da, hesiz inguratuta, sarrera eta irteerak kontrolatuta... Oso berria denez, zerbitzu eta baliabide urriak dituzte, baina guk dirua eta lanerako gogoia genuen -azaldu du Maitanek-. Bost proiektu sustatu eta abiatu genituen: umeentzako eta helduentzako eskola, gaueko zinea, eta komunitatearentzako liburutegia eta asanblada”.

Arropa eta elikagaien beharra dute. Egunak pasatzen dituzte ur barik. Higienarik ez. Komun eta dutxa gutxi, eta daudenak kutreak. Bost metro karratuko kanpin-den-

dan 15 lagun bizi daitezke. Ume asko eta ama gazte mordoak. “Egunez ez daukate zereginik: esnatu, orduak pasatzen ikusi eta lo egin -dio Maitanek-. Horretaz kezkatzen dira: gogaitasuna eta produktibitate falta. Horri ziurgabetasuna gehitu behar zaio: ez dakite zer gertatuko zaien, egunen batean hortik irten eta euren bizitzekin jarraitzeko aukera izango duten”.

Maitaneren esanetan, pertsona horiek bonba eta baleatik salbu egon daitezke, baina gerrak dakartzen ez behar guztiak pairatzen dituzte oraindik: heriotza, barkadeara, desesperazioa, ziurgabetasuna eta beldurra. “Errefuxiatuta daude, baina ez dira errefuxiatuak sentitzen. Soilik gizakion maitasunak lortu dezake hori”.

Fatimaren liburua

Maitanek altxor txikia ekarri zuen Tesalonikatik. Fatima deituriko umetxoak marrazkiz beteriko koadernoan oinarritu zion. “Bere historia jasotzen du orri horietan, eta marrazki gordinez osatuta dago. Oso gogorra da, baina sentsibilizatzeko baliabide paregabea da. Bere neba baten laguntzarekin ipuina egin dugu, eta lan



Eskuman, Maitane Egido.

hura argitaratzeko lanean dihardut”.

Azkenik, zarata atera behar dela esaten du Egidok, egoera aldatzeko eskatu. “Garrantzitsua da baita ere gure ekintzak birplanteatzea, batzuetan gure egunerokotasunak horrelako egoeren konplize bihurtzen gaituelako. Hori onartzeak erruduntasuna eta lotsa handia sorrarazi dit”. Baina ez da hain urrutira joan behar: “Gure herrietan ere komunitatearen ongizatea hobetzeko ekintzak egin genitzake. Seguruena gure ondoan badago gure elkartasuna behar duenik”, ziurtatzen du.

Dorleta Vidal



Bitsi-denda Tailer propicia Edoju-denda



Senén
1978

Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com



CITROËN
AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefonoa 943 17 04 14



Sagarra
Gastro-Pub

Probaleku 4 · Ermua · 943 946 810



enolimp
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel. 618 89 29 60 - 620 13 65 23
E-maila. enolimp@hotmail.com
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak

www.enolimp.es



Geraleku
Taberna

Paco autobus geltokiaren ondoan gaude



hanigan's
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburu eta jaiegunetan,
10:00etatik.

Komentukua z/g. 943030527

27. SAN MARTIN AZOKAN:**100€**
(tabernariak)**50€**
(dendariak)

=



+



688632874

Errifen takoa eskuratu nahi duten tabernariak 100€ ordaindu (dendariak, 50€) eta laguntzaile bandera jasoko dute. Informazioa: 943179350

* Errifak eskatzeko azken eguna, urriaren 23a

San Martin Azoka prestatzen dihardugu!

Dagoeneko ate joka dugu San Martin Azokaren edizio berria, 27.a. Urtero legez, ermuarrek eta euskaltzaleek hitzordu berezia izango dute azaroaren 12an, larunbata, goizetik gauera arte jai giro euskaldunaz gozatzeko.

Aurten ere animalien azoka handiagoa izango da eta artaldearen jaitsiera egingo da Zubiaurre kale-tik. Iaz lehen aldiz antzinarako lanen erakusketa egin zen (dolarearekin sagar muztioa atera eta dastatzera eman zen), eta aurten garia eta garagarra jartzeko erabiltzen den makina ekarriko da erakusketa egiteko. Horrez gain, herri kirolak izango dira Komentukua kalean, erakusleihen lehiaketa egingo da, baba-jana Merkatu Plazan, erro-

meria Luhartz taldearekin eta beste hainbat ekintza. Antolatzaileek azpimarratzen dute egun horretan musu-truk lanerako prest zaudeten guztiok (goizeko muntaia, txandak, desmuntaia...) ongietorriak izango zaretela. Lagundu eta parte hartu nahi izanez gero, deitu 943179350 edo 688632874 telefonora. Bestetik, Ermuko elkarte eta talde guztiei azaroko San Martin kulturalean edozein ekintza aurrera eramateko gonbidapena luzatzen zaie.

Nekazari eta ekoizleak

Azokan parte hartu nahi duten nekazari eta ekoizleek urriaren 3a eta 14a bitartean eman beharko dute izena Abiapuntu bulegoan (Konbentukoa kalea, 3). Durangaldeko nahiz Lea-Artibaiko eskualdeko herrietako ekoizle zein nekazariak bideratu ahalko dute parte hartzeko eskabidea. Ezti, sagardo eta txakolin lehiaketetan, berriz, Bizkaiko udalerrri guztietako ekoizleek. Salbuespen moduan, mugakide diren Eibarko ekoizleek ere eskabidea bidera dezakete. Plazak mugatuak dira.

Artisauak

Aurreko urteetan egin den bezala, artisauen postuak ipiniko dira eliza aurreko plazatxoan. Euren produk-

tuak bertan ikusgarri ipini nahi dituztenek ere izena eman beharko dute urriaren 1etik aurrera, 943179350 edo 688632874 telefonora deituta. Plazak mugatuak dira kasu horretan ere.

Bertso jaialdia

Aurtengo bertso saioa azaroaren 4an izango da, Ermua Antzokian 22:15ean. Punta-puntako bertsolariak izango dira Ermuan aurten ere: Uxue Alberdi, Amets Arzallus, Andoni Egaña, Nerea Ibarzabal, Unai Iturriaga eta Alaia Martin, eta Josu Goikoetxea izango da gaitzartzailea. Sarrerak 10 eurotan ipiniko dira salgai, eta alde zurretik erosi ahal izango dira Lobiano Kultur Gunean, Kutxabankeko kutxazainetan eta webgunean, eta 944310310 telefonon.

Ferreteria ANBOTO Burdindegia

Orain **KOTXEKO GILTZEN KOPIAK** ere egiten ditugu

943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es

esonline®

+ @ + +

846 080 010

Cardenal Orbe Plazan, 06 - Ermua

esonline.es

Jessica Oleaga, ingeleseko irakurketa klubeko dinamizatzailea:

“Une atsegina igarotzeko aitzakia da liburua”

Ermura ezkondua dagoen gernikarra da Jessica, baina jatorri exotikoa du: Macaon jaio (Hong Kong-en) eta Italian bizi izan da 8 urtez. Filologia ingelesean lizentziatua da, eta azken 4 urteotan dinamizatzaile lanak egiten ditu Udal Liburutegiak antolatzen duen ingeleseko irakurketa klubean.

- Zein da ingeleseko irakurketa klubeko helburua?

Topagunea izatea: iritziak elkar trukatzeke eta une atsegina pasatzeko topagunea, hain zuzen ere. Hilero liburu bat irakurri eta horri buruz hitz egiten dugu gure saioetan (mamiaz, pertsonaiez, idazleaz...), baina liburu hura solasaldirako aitzakia baino ez da. Bakoi-tzak bere ikuspuntua azaltzen du eta elkar aberasten dugu. Nahiz eta ingeles maila baxuagoa izan, parte hartzaile guztiek daukate zer esana.

- Zein da dinamizatzailearen lana?

Saioak bideratu, parte-hartzaileak gidatu... Batzuetan ez daukagu erraztasunik ingelesez hitz egiteko, orduan ni galdara egokiak egiten saiatzen naiz, eurek hitz egin dezaten. Hala ere, normalean berez irteten dira komentarioak.

- Parte-hartzaileek hanka sartzen dutenean, zuzenketak egiten dituzu?

Ez. Batzuetan gogoarekin geratzen naiz, baina gurea ez da ingeleseko kla-

sea, horretarako badaude mintzamen saioak. Gainera, ez dut inor moztu nahi: literaturari buruz hitz egitea ez da erraza eta gramatika kontuekin etenez gero, haria galtzeko arriskua dago. Denbora gutxi dugu eta eurek hitz egiteko aprobetxatu behar dute. Saiatzen naiz denek hitz egin dezaten, baina bakoitzak nahi duena egin dezake, ez dut inor derrigortzen. Batzuk nahiago dute entzutea.

- Gutxieneko ingeles maila eskatzen da irakurketa klubean parte hartzeko?

Ez, edozeinek har dezake parte, baina egokiena litzateke B2 maila izatea, gutxi gora behera. Ez baduzu ulertzen irakurtzen duzuna, ez gainontzekoek esaten dutena... akabo! Aitortu behar da klubera datozenen ingeles maila asko hobetu daitekeela, urtean 8 liburu irakurrita hiztegia asko aberasten baita. Hala ere, nik ez dut gomendatzen ulertzen ez diren hitz guztiak hiztegian begiratzea: esaldiaren esanahia ulertuz gero, aurrera!



- Noiz ekingo zaie ikasturte honetako saioei?

Urriaren 4an izango da lehen saioa, 19:00etatik 20:30era. Parte hartu nahi dutenek Udal Liburutegian eman behar dute izena, eta une berean jasoko dute lehen saiorako irakurri beharreko liburua: *A girl with a pearl earring* (Tracy Chevalier). Nahiz eta osorik irakurtzeko denborarik ez izan, saiora etor daiteke, besteek esaten dutena entzutea edo irakurri den zatiaz hitz egitera.

Dorleta Vidal



 Telf.: 943 17 60 75

banatzaile ofiziala

- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Yllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- nitida

arral@arral97.com - Pol. Ind. Goitondo Goikoa Parcela Pab. 1 - Mallabia



 IZASKUN TXURRUKA

 Goiencate 9 Bajo

 48260 Ermua Bizkaia

 94 317 66 90

 peluqueriaizaskun@gmail.com

 peluqueriaizaskun.wordpress.com



TORREKUA

Pintxo eta kazolatxoak

 Torrekua kalea 2 - Ermua

 943 17 69 29

T X U S R I O J A

- Umetako oroitzapenik?

Herri polit batean bizi nintzen, animaliak zeuden, eta amuarrainak hartzen nituen errekan. Gehienetan ez nintzen eskolara joaten. Ez nintzen geldituta egotekoa, eta amak Cachotuno ezizena jarri zidan. Oso zoriontsua nintzen ama hil zenera arte, 8 urte nituen. Gauzak zeharo aldatu ziren orduan.

- Zer gertatu zen?

Aita Alemaniara joan zen lanera eta lau anaiok erreformatario batean sartu gintuzten. 8 urtetik 16 urtera. Kontatuko banu zer zegoen han!

- Noiz etorri zinen Soriatik?

1968an Zarautzera heldu nintzen, bakarrik, egurrezko maleta batekin. 17 urte eman nituen bertan, tailer batean lanean, mekanikoa naiz.

- Eta noiz erabaki zenuen Ermura etortzea?

Juncal ezagutu nuenean. Urtebete edo urte eta erdi Andaluzian eman eta gero, bueltatzea erabaki genuen.

- Eta orduan zabaldu zenuen Scorpio taberna?

Bai, 1986ko ekainaren 21ean. Riki koinatuarekin zabaldu nuen, baina berak handik urtebetera laga zuen.

- Nola izan ziren lehen urte horiek?

Gogorrak. Junquik eta nik barran egiten genuen lan eta umeak etxean laga behar izaten genituen, bakarrik.

- Poliziarekin ere arazoak izan zenituzten...

Bai, nik hartu baino lehen taberna arazotsua zen, yonkien taberna. Kili kili zuen



Saldueron jaio zen Jesús Ángel Rioja, Sorian, duela 63 urte. Lau anaien artean, bigarrena da. Juncalekin ezkondu da eta 3 seme dituzte: Annûr, Josu eta Asier. Duela 30 urte zabaldu zuen Scorpio taberna, eta ospatzeko jai erraldoia antolatu zuten irailaren 24an. Barra atzean erretiratuko da seguruenik, bizitzako etapa garrantzitsu bati itxiera emanez.

izena. Nik zabaldu eta hurrengo egunean gaztetxearen aldeko manifestazioa izan zen, eta ke-potoak bota zizkigun poliziak. Asko bigilatzen gintuzten hasieran.

- Taberna gaur egun dagoen bezala hartu zenuen?

Ez, ni MacGyver naiz. Tabernan dagoen guzti-guztia nik egin dut, nire eskuekin. Benetan asebetetzen nauna da egiten ditudan lan guztiak ondo egitea, bihotzez egiten ditudalako.

- Heavya izan da betidanik?

Lehen taberna rockeroa zen, ni rockeroa nintzelako: Pink Floyd, Led Zeppelin, Deep Purple... Alber iloba eta nire semeen laguntzarekin heavya bilakatu zen, baina tabernak ez du sekula bere rock arima galdu.

- Heavyaren tenplua esaten diote tabernari...

Bai, inguruko herrietan ez da horrelakorik egon, Ermutik Arrasateraino behintzat.

- Zuen bezeroa heavya da?

Hona jende guztia sartzen da, heavyak eta heavyak ez

direnak. Oso pozgarria da ikustea zenbat bikote sortu diren tabernan, eta orain bikote horiek euren seme-ala-bekin egiten dute topo askotan hemen, tragoa hartzen.

- 30 urte ez dira egunero betetzen. Zer egin duzue ospatzeko?

Poteoa eta bazkaria 60 lagun baino gehiagorekin. Arratsaldean Ermuko talde mitikoekin 5 orduko kontzertua egin genuen: Julio Kage-ta, Storbais, Aftershock, Red Blaze, Krisban eta Kokein. Gauean mokaduak eta 3 DJen arteko binilo bataila.

- Gutxi geratzen zaizu erretiratzeke. Semeek hartuko dute taberna?

Ez, taberna traspasoan dago. Semeek haurtzaroa pasatu dute hemen, oso gazte hasi ziren lanean, eta nekatuta daude. Barra atzean egotea gogorra da, eta zaila da bizitza arrunt bat horrelako negozio batekin uztartzea. Aurrera begiratu behar dute eta etapa honi agur esan.

- Zer egiten duzu aisialdian?

Annûr semearekin egoten naiz gehienetan, lagunak onenak garelako. Txakurrekin joaten gara mendira, edo Errioxan dugun etxetxora lanera.

- Salduerora joaten jarraitzen duzu?

Gutxitan, baina buruan eta bihotzean daramat beti. Urrian joaten naiz Annûrrekin urtero ondoak hartzera, eta zoriontsuak gara bertan!

Dorleta Vidal

SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305



KRABI
Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

Anne Erauskin, txikitasunetik handitasunera

18 urteko ermuar honek Errotabarri Eskubaloi taldean jokatzen du, eta aurten Espainiako Selekzioarekin jarduteko aukera izan du emakumezkoen mundialean. Etxetik kanpo hilabete igarotzea gogorra egin zaion arren, esperientzia polita izan dela aitortzen du.

10 edo 11 urterekin hasi zen eskubaloiari jokatzen. Lehen Hezkuntzako 5. mailan, eskubaloi talde bat osatzea erabaki zuen lagunekin batera, batez ere elkarrekin denbora gehiago egoteko helburuarekin. Hasierako lehen talde hori Anaitasuna izan zen. Bertan bi urte oso gustura egon ondoren, Ermuko Errotabarri taldera egin zuen aldaketa, edo jauzi erraldoia. Aldaketa nabarmena izan zela dio, ezagutzen ez zituen neskin jokatu behar baitzuen, eta horrez gain entrenamendu gogorragoak, maila altuagoa eta mila gauza gehiago!

Ekaina eta uztailean Espainiako Selekzioarekin aritzeko gonbitea jaso zuen, jubenetan, eta bertan bizi izandako esperientziak be-

rak zituen irudikapenak bizi ki gairak dituela dio. Gaizkien eraman duena denboraren kontua izan da. Nahiz eta azkeneko egunak zitu bizian pasatu, hilabete oso bat etxetik kanpo eta familiarekin egon gabe pasatzea gogorra egin zaio. Baina beste gauza guztiez ez da kexatzen, oro har oso esperientzia polita izan delako. Gainera, Europako herrialde batzuk ezagutzeko aukera izan du, Kroazia, Suedia eta Eslovakia besteak beste.

“Entrenamenduak eta prestaketak oso gogorrak izan dira”, dio neke aurpegiarekin. Madrilan egon ziren lehenengo astea amai-gabea iruditu zitzaion: egunero lau ordu topera entrenatzen, 40 gradurekin. Nahiz eta entrenamenduak oso gogorrak izan, gauza as-



ko ikasi dituela aitortzen du, bai bere joko indibidualari dagokionez, baita neurri batean nerbioak eta partiduetako tentsioa kontrolatzeari dagokionez, bere ustetan oso garrantzitsua. Baina berriro ere horrelako esperientzia bat bizitzeko aukera suertatuz gero, begiak itxia onartuko lukeela dio.

Selekzioko kideekin harremana hotzagoa eta serioagoa izango zela pentsatu zuen, bakoitza bere jokoa soilik zentratuko zelakotan. Baina beste behin ere, ez da horrela izan. Nahiz eta pista

barruan nahiko indibidualak izan, kanpoan guztiz kontrako jarrera hartzen zuten. Oso talde bateratua izatea lortu zutela dio Annek pozik, harremana oso ona izan zela, estua, eta horrek hilabetea eramangarriagoa egiten lagundu ziela.

Momentuz ez du pentsatu selekziara bueltatuko denik. Orain Liga luze bat dute aurrean eta partidu bakoitza ahal duen hoberen jolasten ahaleginduko da, gero geroakoak. Bere esanetan, “datoarren guztiari aurre eginez”.

Armaia Arginzoniz

OINAK

LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
© 943 17 47 44

san pelayo
clínica dental horts klinika

San Pelayo 5, 1º
Ermua (Bizkaia)

Olatz Garcia Arregui

943 17 04 04

**OSASUNA • ESTETIKA
EDERTASUNA**

Marfil

*Ile-apaindegi bat
bano gehiago!*

Egokitutako burua garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

PUB YOMY

Zubiaurre
kalearen
bihotzean

es
egolek

electricitatea
iluminazioa

M. de Valdespina 14 · ERMUA
943 17 00 61 · egolek@hotmail.com

Udazken koloretan

Hemen dira, berriro ere hasiak dira agertzen udazken koloreak gurean. Egunotan giroa freskatu zaigu eta lanbroa inguru blaitzen hasi da berriro. Iraila hasieratik ere eguna nola laburtzen hasia den nabarmen sentitzen gabiltza eta, bai, iritsi zaigu urtaro aldaketa.

Gehienok ahaztuak ditugu oporrek eta kurtso berriaren martxan murgilduak gara dagoeneko. Egunerokoan ordutegi finkoen araberrako erritmorra ohitu gara honezkerok. Helduak lanera eta etxeko txikiak eta gaztetxoak ondoren, orain aste bi, eskolara buelta.

Iraila familia askorentzat aurreikuspen eta gastu handiko unekorapilatsua izaten da. Helduentzako erritmo berrira egokitzearekin batera, kurtso berria nola an-

tolatu izaten da arduetako bat. Eskolako testu liburuek, materiallek eta arropak ere sortzen dute buruhaustea eta etxeko guztientzako antolaketa eta egokitzapen momentu garrantzitsua izaten da.

Estimulu askoko bi hilabete luze eta gero, txiki eta gaztetxo askori bueltara egokitzea zaila egiten zaio: ordutegiak, eskolan askotan irakasle berriak, eduki, helburu eta erronka berriak, duda barik, sentimendu askoko unea izaten da eurentzat eta nola maneiatu jakin barik egoten dira.

Iraila eta berarekin batera egokitzapena, beraz, garrantzitsua da etxeko txikiekin eta gaztetxoekin batera konpartitzea. Kurtso berriaren antolaketak suposatzen dituen eginbeharrak ere euren ardura badirela erakustea. Sentitzen dutenaz ohartzea, kur-



Ainara Riveras

tso berrira begirako aldaketak, zalantzak, urduritasunak, proiektu berrien erronkak identifikatzea eta lantzen hastea. Euren barruko ahalmenez ohartaraztea. Horretan ere bagara euren erreferentzia eta eredu-puntu ezinbesteko, eta garrantzitsua da prozesuan euren bidelagun leial bihurtzea.

Etxeko epelera bueltatzea, peoran, auzoan, herrian denok gaudela ikustea, lagunak, lana, familia, asmo, erronka eta helburu berriak baditugula sentitzea. Zorionaren funtsetako bat hemen da eta bueltatu da. Ongietorri denoi, hortaz, eta onena kurtso berrirako. Bat. Bi. Hiru. Prest gara!

“ Estimulu askoko bi hilabete luze eta gero, txiki eta gaztetxo askori bueltara egokitzea zaila egiten zaio ”



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISSETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89



✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
 ✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

solozabal
tabakoak

torrekua 1
 tel./fax: 943 17 07 33



Pub Dakota



Probaleku, z/g
 Ermua (Bizkaia)
 dakotaermua@hotmail.com

ALOKAIRUA

Pisua alokatzen dut Zubiurre 24an. Bi logela ditu. ☎ 648 64 37 15

Pisua alokatzen dut Iparragirre kalean. Bi logela ditu. ☎ 669 20 91 83



Irailaren 15ean
Zorionak Peru zure hamargarren urtebetetzean. Musu handi bat etxeko guztion partez!



Irailaren 22an
Zorionak Ariane! Egun handia pasa zure urtebetetze egunean.



Urriaren 3an
Zorionak guapa!! Musu handi bat familiaren partez eta ondo pasa zure eguna.



Irailaren 25ean
Zorionak Ainere! Ondo pasa zure 3. urtebetetze egunean. Patxo handi bat familia osoaren partez.



Urriaren 3an
Zorionak Aitzol zure 5. urtebetetzean!!! Musu handi handia Lexuriren partez.



Irailaren 19an
Zorionak Xabi!! Zure bigarren urtebetetzean polit hori, musu handi-handi bat familia osoaren partez.



Urriaren 1ean
Zorionak Udane! Zazpi urte, zazpi mila muxu etxekoen partez.



Irailaren 22an
Zorionak Asier etxekoen partez. Ondo pasa!



Irailaren 19an
Zorionak Aiur, 10 urte!!! Segi hain alai eta maitekor, musu asko familiaren partez.



Urriaren 3an
Zorionak Unax!!!! Jarraitu beti bezain jatorra izaten. Musu handi bat zure gurasoen partez.



Irailaren 30ean
Zorionak Aimar zure 2. urtebetetzean! Patxo handi bat etxekoen partez.



Urriaren 7an
Zorionak Izaro eta Maite etxekoen partez. Neska zoragarriak zarete! Musu bat!

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua: drogeten@gmail.com

Azken eguna: **Urriaren 19a.**

Quetzal
[arropa, bitxiak, opariak...]
Goienkale, 9 • 48260 ERMUA | 943170065
www.quetzalmoda.com [f] [B]

Caperos
Pintxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitartekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

mari asun
LORADENDA
Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

URRETA burdindenda
 ✕ Etxea ✕ Giltzak
 ✕ Tresneria ✕ Sarrailagintza
 ✕ Brikolajea ✕ Kit altzariak
 ✕ Enrailak
 Beharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

**MALLABIA
1959**

Argazki hau 1959 ingurukoa da. Ezin izan dugu jakin non ateratu zen, ezta zer ospatzen ari ziren bertan agertzen direnak. Ea baten batek dakien!

Maria Lourdes Astarloa, Mari Luz Txuruka, Brigida Pradera, Bitoria Aldalur, Mertxe Mugarza, Mari Carmen Mallabiarrena, Mari Luz Azurmendi, Mari Tere Biritxinaga, Rosario Aldalur, Pazita Pradera, Rosa Mari Arregi, Begoña Biritxinaga, Cecilia Biritxinaga eta Mari Tere Astarloa.

**ERMUA
1945**

Idigoras Arzuaga anai-arrebak, ezkerretik hasita: Joseba, Josu, Teres, Edurne, Miren, Jon eta Alexander. Gurasoak, Periko eta Maria, euren aurreko aldean jarrita. *Pedratxanekuak* euren gatxizena, Pedro Atxaren ondorengoak nonbait.

Zubiaurre eta Probalekuren arteko kantoian zegoen *Pedratxa* etxea, Labakoa bezala eskritura-tutakoa.

Enter

INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOKA

VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

Pub SCORPIO

Zubiaurre, 21
ERMUA

Proba-Leku

Heapaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

Abzutuako oporrak baino lehen, hiru igogailu eraiki ziren Ermuan: bat Zerukoa 3 kalean, Zerukoa eta Ongarai auzoak lotzeko; beste bi San Pelaion, San Pelaio eta Ongarai auzoak elkartzeko.

Dagoeneko erabili dituzu?

Non ipiniko zenuke igogailu bat?



San Pelaioakoak ez ditut erabili, eta ez nekien Zerukoan beste igogailu bat zegoenik. Anbulatoriora igo eta jaisteko ipiniko nuke igogailua zaharren egoitza ingurutik, San Lorentzotik datorren jende nagusia Lobianoko arrapalartaraino joan behar delako. Beste bat San Antonion, autobus geltoki inguruan, atzeko parkera igotzeko.

Asún Díaz, 36 urte



Orain arte oso gutxi erabili ditut, ez bainaiz inguruan bizi. Ondo iruditzen zait igogailuak egitea, baina momentu honetan ez dut gehiagoren beharrik ikusten. Beharbada anbulatoriora igotzeko, nahiz eta teknikoki oso zaila izan.

Roge Bouzo, 43 urte



San Pelaioakoa behin erabili dut, Aldaparaino. Herriko gainontzeko auzo altuak ondo komunikatuta daudela uste dut, baina egia esateko, arrapala mekanikoek ez dute umeen karroen eta gurgildun aulkien arazoa konpontzen. Igotzea debeatuta dago, eta arriskutsu da, eta gainera ez dute ematen jaisteko aukerarik.

Félix Delgado, 45 urte



Ez ditut erabili. Anbulatoriora joateko ipiniko nuke igogailua, arrapala mekanikoetatik ezin delako jaitsi, soilik igo. Gainera, eskolartara doazen igogailuak eta arrapala mekanikoak kenduko nituzke. Umeek eta gazteek ariketa fisiko apur bat egin behar dute, gure garaian eskolara joateko egiten genuen bezala.

Desireé Asensio, 42 urte

Tasio eta Sabino



- Eskerrak igogailua ipini duten!
- Bai, kiroldegian dena eman eta gero ezinbestekoa zaigu!

ZINEA

1etik 3ra:
"Cuerpo de élite" +
"Gemika"

8tik 10era:
"El hombre de las mil
caras" + "El elegido"

15etik 17ra:
"Los hombres libres de
Jones" + "Neruda"

22tik 24ra:
"Los 7 magníficos" +
"Florence Foster Jenkins"

29tik 31ra:
"El tiempo de los
monstruos" + "Elle"
Ermua Antzokian.
Hainbat ordutegi.

**UMEENTZAKO
ZINEA**

Hilak 2:
"Angry Birds 3D"

Hilak 9:
"Zipi y zape y la isla
del capitán"

Hilak 16:
"Go!azen"

Hilak 23:
"Mascotas 3D"

Hilak 30:
"El pincel mágico"
Ermua Antzokian.
17:00etan.

ZINE-KLUBA

Hilak 6:
"Boi Neon"

Hilak 13:
"K2. Tocando el cielo"

Hilak 20:
"Sonita"

Hilak 27:
"Captain Fantastic"
Antzokian. 20:30ean.

MUSIKA

Hilak 14:
Kontzertua: Sidecars.
22:15ean. Antzokian.
Sarrera: 12€

Hilak 15:
Blues kontzertua: The
Soul Jacket. 20:00etan.
Lobianon. Sarrera: 8€

Hilak 21:
Kontzertua-Antzerkia-
Umorea: Stradivarias II.
22:15ean. Antzokian.
Sarrera: 10€

Hilak 22:
Hip-Hop kontzertua:
Rebeca Lane.
20:00etan. Lobianon.
Sarrera: 5€

Hilak 28:
Zarzuela: "Marina",
Camerata Líricaren
eskutik. 22:15ean.
Antzokian. Sarrera: 10€

ANTZERKIA

Hilak 7:
"Yerma", Sutegi
Antzerkiaren eskutik.
22:15ean. Antzokian.
Sarrera: 8€

PRESSPLAY! ERMUA:
**Kultura eta giza
eskubideei buruzko
zine jaialdia**

Hilak 17:
"They will have to kill us:
Malian music in exile".
19:30ean.
Lobiano Kultur Gunean.

Hilak 18:
"Favela on Bast".
19:30ean.
Ermua Antzokian.

Hilak 19:
"Sigo siendo".
19:30ean.
Ermua Antzokian.

Hilak 20:
"Sonita". 20:00etan.
Ermua Antzokian.

Hilak 21:
Kulturen arteko
kontzertua:
Kumar Sublevao Beat
Feat: Ermuko soinuak.
19:00etan.
Orbe Kardenalaren
plazan.

ERAKUSKETAK

Hilaren 2ra arte:
Margoa: Isabel
Vicenteren lanak.

Hilaren 17tik 30era:
Argazki erakusketa:
Mikologiari buruzko
lehiaketara
aurkeztutako lanak.
Lobiano Kultur Gunean.
18:00etatik 20:00etara

BESTELAKOAK

Hilaren 2ra arte:
Gaztela-Leoneko Kultur
Zentroaren astea:
hainbat ekitaldi.
Gaztela-Leoneko
Zentroan.

Hilaren 2ra arte:
Erdi aroko azoka:
hainbat ekitaldi.
San Pelaio plazan.

Hilak 8:
Eskilarapeko eguna:
Ume jolasak, herri
bazkaria, dokumentala,
kontzertuak...
Orbe Kardenalaren
plazan eta
Eskilarapekon.

Hilaren 20tik 23ra:
Mikologiari buruzko
jardunaldiak:
Hainbat ekitaldi.

Patxi López



**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

PRO



- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA
IZOZTUAK

**ESKAINZA BEREZIA
OSTRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA

**Infreñu
Taberna**



Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

ALBOKA




**MUSIKA
ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarinetea
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardinoa
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoiaia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

GREMIOEN

GIDA



ELEKTRIZITATEA

BETA

**ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA**

- Proiektuak
- Instalazioak
- Erreformak
- Kalefakzioa
- Gaueko tarifa
- Erradiadore elektrikoak

Diputazio, 13 943 17 65 25
689 23 31 71

ITURGINTZA

ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA
LUIS VALLE

Bainugelen erakusketa
943 17 15 56

Tailerra
943 17 23 56

Goienkale z/g

ETXE-BIRGAITZEAK

BERRITZE LANAK
ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOK
LAGUNDUKO DIZU

ZUK ERABAKI

www.spara.es
info@spara.es
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Eraikina Zeharkalea, 36, 3^o 48200 Ermua -Bizkaia-

DEKORAZIOA

OBREN KOORDINAZIOA * MARIAN CARRACEDO DEKORATZABEA

dekorazio estudioa

trastévere

barruko dekorazioa

san pelaio, 26 ermua
tel/faxa, 943 17 90 89
trastevere@wanadoo.es

ETXETRESNAK

Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

ERROTULAZIOA

ROTEK
rótulos

- Argi errotuloak
- Autoendako errotuloak
- Barne errotulazioa
- Irudi korporatiboa
- Neoia
- Inpresio digitala formato handian

Goitondo behekoa industrialdea
C-1 partzela, 5 beheka (Mallabia)
T / F: 943 17 00 36 • rotek@telefonica.net

PERTSIANAK

TOLDOS Y PERSIANAS ORBE

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK.

TAILERRA:
Zearreko buelta 2
943 17 66 34
630 01 13 41

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com

**%100
AFEKTIBOA**
Eman izena



Ermuko Kaltxango AEK

Euskalduntzea
4. maila (C2) aurrez aurre
Azterketa ofizialak prestatzeko ikastaroak
Autoikaskuntza
Berbalagun
Txandaka aritzeko aukera
%100era arteko diru-laguntzak

EUSKALTEGI HOMOLOGATUA

Matrikularekin batera "AIZU!" aldizkarian doako harpidetza

Bizkaia etorbidea13, behea
943 17 19 40 · kaltxango@æk.eus